

Antigua

Txerri jaia Gaskoina plazan

Hilaren 9an San Martin eguna egingo da auzoan, AEKK antolatuta. Aurten, AEKK, San Martin egunari buruzko ipuin lehiaketa antolatu du Donostiako eus-kaltegiatako ikasleen artean.



Bi txerrikume erreko dituzte ostiralean Gaskoina plazan.

Hilaren 9an txorizo dastaketa egingo da

Erika Erkizia 943-313887
Hilaren 9an, 19.30etan, auzoko trikitilari gaztetxoek txerri jaiarako deialdia egingo dute Antiguako kaleetan barrera. Ondoren, 20.30etan, Gaskoina plazan, tradizioak agindu bezala, odolki eta txorizo dastaketa egingo da.

Horrez gain, bi txerrikume erreko dituzte, musikak giro tuta. Esan bezala, aurten, AEKK ipuin lehiaketa antolatu

du AEKKo Donostiako ikasle guztien artean. Gaia San Martin eguna izan da, eta ipuin politena sarituko dute. Sari banaketa ostiralean bertan egingo da Gaskoina plazan. Zer eramango du etxera irabazleak? Txerrikumea, opari ederra, bai horixe.


Altza

Estibaus, Altzako berripaperera prest

Altzako Historia Mintegiak (AHM) hiru hilabete behin Estibaus izeneko buletina kaleratzen du. Dagoeneko 21. alea prest dago eta laster izango dugu eskuarte.

Berripaperaren 21. alea kaleratuko da

ria. Horrez gain, duela hilabete hildako Manuel Zapirainen omenez, berak uda honetan bertan idatzitako bertsoak argitaratu dira.



Sara Soria 943-357037

Oraingo alean, hiru gai dira nagusi: "Txokolarite" Grafika Taldearen ekintzak, "Altza, hautsa kenduz" bildumako ale berria eta Altzako Gaztetxearen histo-

ria. Horrez gain, duela hilabete hildako Manuel Zapirainen omenez, berak uda honetan bertan idatzitako bertsoak argitaratu dira. Agian oraindik ez dakizue zergatik jarri dioten Estibaus izena Altzako Berri paperari. Dirudenez, Estibaus Altzako familia eta etxe baten izena zen eta garai batean, haien larretan altzatarrek batzarrak

Laster iritsiko da altzatarren etxeetara Estibausen ale berria. egiten omen zituzten. Estibaus boletinak, zelai hura bezala, altzatarren topaleku izan nahi du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile: En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social